



2019-2020

ALARMA-EGOERARI LOTUTAKO IKASLEEN ZEHAR-KONPETENTZIEN GARAPENA

DBH

*Egoeraren ezagutzatik
hezkuntza esku-hartzeko bidea
egiten*



Sarrera

COVID-19 pandemia dela eta martxoaren 14ean deklaraturako alarma-egoerak eraginda ezarritako neurrien ondorioz, gure gizartea zurrumbilo emozional batean murgilduta dago. Horrelakoetan, urduritasuna, frustrazioa edo gogogabetasunak areagotu egiten dira eta argitara ateratzen dira kudeatzen jakin behar diren sentimenduak eta emozioak gainezka ezin ez dezaten. Bizi genuen egoera eta konfinamendu-deseskalatze uneetan bizitzen ari garena erabat ezberdinak dira eta, horrek egokitzapenaren beharra dakar berekin.

Izan ere, Hezkuntza-komunitate osoaren ardura eta kezka da, ezarritako neurriek izan dezaketen eragina ikasleen ikaskuntza prozesuan zein bilakaera pertsonalean, eta zer nolako eszenatokiak izango ditugun ikastetxeak berriro irekitzen direnean.

Horren aurrean badugu era bat erantzun egokia eskaini ahal izateko. Kezka hezkuntza erronka bihurtuz, egoerak ondorioztatutako eragin kaltegarria murrizteaz gain, ikasteko eta garapen pertsonalerako aukera ere ireki daiteke.

Horretarako, batetik, emozioen kudeaketan laguntzeko, seinale fisikoak eta pentsamenduak ezagutu eta identifikatu behar dira; nola sentitzen garen zergatiak ikertu eta aurkitu behar da; esperientzia emozional hori hitz egoki eta jakin batekin izendatu behar da, sentitzen denaz jabetzeko eta adierazpen egokia lantzeko.

Bestetik, bizi izandako esperientzien aurrean ikasleek nola jokatu eta jardun duten inguruan gogoetarako aukera eskaintzeak, lagunduko du, bai ala bai, izandako ikasketen autoerregulazioan eta bizitza osorako ikasketan.

Beraz, kezka erronka bihurtzeko asmoak bultzatuta, eta adierazitako ekintzak gauzatu ahal izateko, eskaintzen da esku artean duzuen hezkuntza proposamen antolatua.



Proposamenaren testuingurua eta egitura orokorra

Proposamen hau aurkezterakoan, kontuan hartzen da irakasleak alarma-egoera hasi zenetik ari direla lanean ikasleekin eta familiekin, eta kasu askotan ikasleen egoera sozio emozionala ezagutzen dutela. Jakin badakigu, ahalegin handia egin dela familia guztiekin harreman hurbila izateko, eta hori ez dela erraza izan kasu batzuetan; beraz, irakasleen aldetik erakutsitako konpromisoa handia izan da eta hori balioan jarri nahi dugu.

Hala ere, ikasturtearen amaiera hurbiltzen ari denez, beharrezkoa da diagnostiko bat egitea, batetik, une honetan ikasleek dituzten beharrezkoen ezagutzatik abiatuta, dagozkien orientabideak eta laguntza eskaintzeko, eta bestetik, 2020-2021 ikasturtearen hasierako esku-hartzea ahalik eta egokiena izateko.

Horregatik eremuka antolatuta proposatzen dira zenbait jarduera, inola ere hitzez hitz hartu behar ez direnak, eta, jakina, ikastetxe, gela, ikasle eta familia jakin bakoitzaren testuinguruan interpretatu beharko direnak.

Xedea

Alarma-egoeraren ezarpenaren ondorioz ikasleak beren etxeetan bizitzen ari diren egoera kontuan hartuta, eta informazioa bilduz, ikasle guztien ongizate sozio-emozionalaren eta motibazioaren mailari buruzko **diagnostikoa** egitea, eta **hautemandako beharren arabera orientazioa eta laguntza** ematea.

Ardura

Ikastetxeko orientatzaileak koordinatutako egite horretan, tutorearen protagonismoa eta lidergoa funtsezkoa bada ere, kontuan izan irakaskuntza-funtzioaren tutoretza-izaerari ekiteko, une oro bere tratamenduaren zeharkakotasuna ziurtatu behar dela.

Hezkuntza proposamenaren garapena.

Hezkuntza proposamenari ekin aurretik.

- Komenigarria da oso, irakasleak hezkuntza emozionalaren oinarrian dauden osagaiak kontuan izatea, horrela sozio-emozionalki adimentsua izango den jarrera batez jokatu ahal izateko. Horrela bada, afektuzko enpatia eta enpatia kognitiboa, gorputz hizkuntza, entzute aktiboa, samurtasuna eta laguntzarako prestutasuna adieraztea, besteak beste, lagungarri izango dira konfiantzan oinarritutako une bat eraikitzeko.
- Horrez gain, komenigarria da, ikasleek bizi ahal dituzten testuinguru ezberdinak eta izan daitezkeen eszenatoki anitzen aurrean, nolabaiteko aurreikuspen bat egitea.

Une ezberdinak garatzeko jarduerak.

1. Agurra edo elkarrizketaren hasiera.

Helburua: *Enpatia afektiboaren garapenaren bidez, konfiantza-esparru bat eraikitzea, konplizitatean oinarritutako komunikazioaren bitartez jasotako informazioa ahalik eta esanguratsuena izateko, bai familiaren bidez egiten denean, bai ikaslearekin berarekin egiten denean.*

Elkarrizketak egiteko modua alda daiteke familiaren arabera, eta, alde horretatik, eragina izan dezaketen eta kontuan hartu beharko ditugun aldagai asko daude: LH-DBH, ikasturte mailak, prestutasuna, lanean ari diren ala ez, gertuko heriotza izan duten, nola bizi izan dituzten konfinamendu-hilabeteak eta deseskalatze-prozesua, beren bizipenak kontatu nahi dizkiguten ala ez, eta beste hainbeste egoera ezberdin.

Horregatik, hasieratik, deiaren edo harremanetan jartzeko arrazoien helburua zehaztu beharko da; berriz ere, funtsezkoa da familiak jakitea burutuko den lanaren azken xedea. Horrek, ziurrenik, prozesu komunikatiboa eraginkorragoa izaten lagunduko du.

2. Informazioa jasotzea ardura agertuz.

Helburua: *Ikasleen motibazio, ongizate sozio-emozional eta fisikoaren ezagutzan erakutsitako interesaren bidez, bizi duten egoeran garatutako zehar-kompetentziei buruzko ahalik eta informaziorik osatuena biltzea eta ikasleei gogoetarako une bat eskaintzea.*

Osasun larrialdiak inposatutako konfinamenduak ikaste-irakaste arautuaren **eszenatokia aldatu du**. Etxea ikasgela bihurtu da, aurrez- aurreko harremanak birtualak izatera pasa dira, espazioa eta denbora inoiz baino gehiago partekatu behar izan dira senideekin, ohiturak aldatu behar izan dira, frustrazio uneak areagotu egin dira...

Zailtasunak inola ere gutxietsi gabe, esan ahal da, eszenatoki horrek aukera eman diela ikasleei oinarritzko **zehar-kompetentziak** beste modu batean garatzeko.

Beharbada, dagoeneko, irakasleek ikasleen egoerari buruzko **informazio asko** izango dute jasota. Halere, informazio hori ikasturtearen amaieran **osatzea** eta **antolatzea**, funtsezkoa izango da, datorren ikasturteari begira egokitutako esku-hartzea antolatzeko.



Antolaketa horretan laguntzeko, ikasleen egoera baloratzeko beharrezkoa den informazio hori **zehar-kompetentzien arabera** ordenatu da.

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.	
Ikasteko eta komunikatzeko baliabideen erabilera eta jarrera	Ordenagailua, tableta, mugikorra, telebista... Arazo teknikoak Erabilera neurtua (denbora) Errespetoa eta portaera sarean (netiketa)
Ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko bideak	Hizkuntza desberdinak (ahoz, idatziz, arte lanak, musika, dantza...)
Larrialdi sanitarioak sortutako arazoen aurrean iritzi kritikoa	Hizkuntza desberdinak (ahoz, idatziz, arte lanak, musika, dantza...)
Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	
Ikasteko baldintzak	Ordenagailua, tableta... Interneterako konexioa Lekua, lasaitasuna Motibazioa eta jarrera

Ikasteko denbora eta planifikazioa	Lanak entregatzeko epeak Lanen kalitatea eta esfortzua
Zalantzak argitzeko bideak	Irakasleak, senideak, ikaskideak, lagunak...
Albisteen fidagarritasuna aztertzea	Albiste faltsuen aurkako jarrera
Informazioa ulertzea eta ikastea	Teknika eta estrategia egokiak
Ikasketekiko jarrera	Interesa eta motibazioa
Elkarbizitzarako kompetentzia	
Gatazkak bideratzea	Estrategiak
Arauek eta errespetua	Besteen espazioak, denborak eta beharrak Etxeko garbiketa-lanak eta ardurak
Lagunekin harremanak	Bideo deiak, sare sozialak, telefonoz
Besteen zaintza- eta laguntza- lanetan inplikazioa	Ardurak (gaixo daudenak, adinekoak, txikiak...)
Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia	
Jarduera berriak egiteko edo ikasteko aukera	Sukaldaritza, musika, dantza, arte-lanak, esku-lanak..
Proiektu berriak martxan jartzeko aukera	Musika saioak, antzerki lanak, bideo grabaketak..
Norbera izaten ikasteko kompetentzia	
Norbere buruaren ezagutza	Zaletasun berriak, gaitasunak eta mugak
Malgutasuna, aldaketei egokitzeko prestasuna	Abantailak aurkitzea Errutina berriak ezartzea: lana eta aisialdiaren ordutegiak, elikadura, loa...
Sentimenduak adieraztea	Frustrazioa, beldurra, amorrua, tristura

Eranskinetan **zenbait tresna** eskaintzen dira informazioa jasotzeko eta ikastetxe bakoitzak bere testuinguruari erreparatuz egokiena aukeratu ahal izango du. Horrez gain, tresna horiek baliagarriak izango dira **ikasleek** alarma-egoera garai honetan **ikasi dutenari buruzko gogoeta** eta **autoebaluazioa** egiteko.

1. Telefonoz edo bideo-deiaz **elkarrizketa egiteko gidoia**, irakaslearentzat. *1. Eranskina*
2. **Galdeketa paperean**, ikasleak osatzeko. *2. Eranskina*
3. **Galdeketa online**, ikasleak osatzeko. Ikasleak honen kopia korreo elektronikoan jasoko du. *3. Eranskina*

Tresna horiek egokitu daitezke familiekin landu nahi badira.

3. Jasotako informazioaren balorazioa eta beharrianen detekzioa.

Helburua: *Jasotako informazioaren balorazioa egitea, ikasleen ezagutzan sakontzeko eta motibazio zein alderdi sozioemozionalak eta fisikoak antzemateko, horrela, irakasleek bai une honetan, bai 2020-21 ikasturtearen hasieran egin beharreko esku-hartzeari ekiteko eta egoera bakoitzera egokitutako orientabideak emateko.*

Sarreran aipatu bezala, alarma-egoerak ondorioztatutako neurrietatik, ikasteko eta garapenerako aukerak ere ireki dira. Horren isla, zehar-kompetentziak garatzeko aukera, eta batzuetan izkutatuta geratzen diren zenbait alderdi azaltzeko bidea ireki du konfinamenduak.

Beraz, Oinarrizko kompetentzien eskuratzeko-mailari buruzko txostena egiteko orientazioak, Bigarren Hezkuntza dokumentuan zehar kompetentziak ebaluatzeko zenbait adierazle agertzen badira ere, uste dugu alarma-egoerarekin lotutako **beste adierazle batzuk** kontuan hartu behar ditugula zehar kompetentziak ebaluatzerakoan.

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.

- Konfinamenduak sortutako zenbait ideia, emozio eta sentimendu komunikatzeko gai da, hizkuntza desberdinen bidez.
- Konfinamendu egoerei buruzko iritzi pertsonala era kritikoan azaltzen du .
- Ikasteko eta komunikatzeko kanal desberdinak erabiltzen ditu.
- Pantailen aurrean emandako denbora kontrolatzen du.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia

- Ikasteko leku lasaia du eta behar duen guztia eskura izaten du.
- Ikasteko denbora ondo planifikatzen du.
- Agindutako zereginak epe barruan betetzen ditu.
- Zalantzak argitzeko bideak bilatzen ditu.
- Albiste faltsuak (fake news) bereizten ditu eta ez ditu zabaltzen.
- Hainbat teknika erabiltzen ditu informazioa ulertu eta gogoratzeko.
- Jarrera positiboa dauka ikaskuntza berriei aurre egiteko.

Elkarbizitzarako kompetentzia

- Konfinamenduak sortutako gatazkei irtenbideak bilatzen saiatzen da.
- Etxeko arauak betetzen ditu.
- Senide bakoitzaren gune eta denbora pertsonalak errespetatzen ditu.
- Etxeko mantentze-lanetan esku hartzen du
- Lagunekin harremanak mantentzen ditu.
- Ingurukoak zaintzen edota laguntzen saiatzen da.
- Familian gaixorik edo heriotzaren bat egon bada, egoki aurre egin dio.

Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia

- Denbora librean aprobeztatzen du gauza berriak ikasteko (musika, dantza, eskulanak, sukaldaritza...)
- Proiektu berriak martxan jartzen ditu: musika saioak, antzerki lanak, bideo grabaketak...)

Norbera izaten ikasteko kompetentzia

- Norbere burua hobeto ezagutzen du (gaitasunak eta mugak)
- Egoera berrietara erraz egokitzen da.
- Osasuna zaintzen du: elikadura, loa, ariketa fisikoa...
- Konfinamenduak sortutako sentimenduak egoki kudeatzen ditu: amorrua, beldurra, frustrazioa..
- Denbora librean gustuko dituen jarduerak egiteko aprobetxatzen du.

Balorazio lan horretan laguntzeko eranskinetan tresna hau aurkituko duzue:

Zehar-kompetentzien adierazleak konfinamendu garaian. 4. eranskina



4. Orientabideak

Helburua: *Ikasleen ongizate sozioemozional eta motibazio alderdietan laguntzen duten argibide orokorrak ematea, bai eta orientabideak eta laguntza espezifikoak ere bildutako informazioa baloratu ondoren beharrak agertu dituzten ikasleei.*

- **Ikasleen beharrak jasotzea**

Aurreko puntuan jasotako eta aztertutako informazio guztia konfinamenduan zehar garatu diren **zehar kompetentziei** buruzkoa da. Informazio hori oso baliagarria izango da ikasturte amaieran **ikasleen oinarrizko 12 kompetentziak** (zeharkakoak eta diziplinarrak) baloratzeko orduan.

Balorazio horretan ikasleren batek **beharrak agertuko balitu** txosten batean jasotzea aholkatzen da. Txosten horretan ikasturte honetan hautemandako beharrak jasoko dira, baita datorren ikasturterako orientabideak eman ere.

- **Tutoreak** (edo ikaslearen jarraipenaz arduratu den irakasleak) **alderdi orokorrak** eta **zehar kompetentzien inguruko informazioaz** arduratuko da.
- Irakasgaietako **irakasleak**, **hasierako mailan (1) edo aurreratuan (3)** dauden diziplina baitako kompetentziekin lotutako irakasgaiak zehaztuko ditu. Atal honetan **udako lanak** ere zehaztu ahal dira.

Ikasturte amaierako ikaslearen txosten hori datorren ikasturteko **hezkuntza indartzeko** plan pertsonalizatuaren abiapuntua izango da.



Eranskinetan ikasleen beharrak jasotzeko **eredu bat** eskaintzen da:

Ikasturte amaierako txostenaren eredua. Hezkuntza indartzeko proposamena. 5. Eranskina.

- **Irakasleentzako eta familientzako gomendioak**

Konfinamenduak nerabeen bizitzan eta ongizatean izan duen eraginari buruz bideo eta artikulua asko argitaratu dira azken asteetan.

Garrantzitsua da adituen aholkuak ezagutzea ikasleak hobeto lagundu ahal izateko. Jarraian, gai horri buruz argitaratu diren lanen aukeraketa bat duzue eskuragarri. Bideo motzak dira, baina oso esanguratsuak.

LISA DAMOUR. [Adolescentes y confinados. Qué pueden aprender?](#)

Bideo horretan nerabezaroan aditua den Damour andreak nerabeei laguntzeko jarraibideak eskaintzen ditu, "gazteak ez baitaude ohituta beren pentsamenduekin eta emozioekin hainbeste denbora pasatzera. Ziurgabetasunaren aurrean jarrera positiboa izatea eta ondoez emozionalari aurre egiteko gai izatea da, egia esan, askatasunerako benetako bidea".

ROBERTO AGUADO. [Cómo afrontar la cuarentena](#) BBK Family.

Bideo horretan familiei zuzendutako aholkuak ematen dira, ikasleen ongizate sozio-emozionalarekin zerikusia dutenak.

ROBERTO AGUADO: Adimen emozionalari buruzko bideo motzak (BBK Family).

[Inteligencia emocional I](#)

[Inteligencia emocional II](#)

[Inteligencia emocional III](#)

[Inteligencia emocional IV](#)

5. 2019-20 ikasturtearen amaiera.

Helburua: 2019-20 ikasturtearen amaierari ekitea mezu positiboan erabilera eta ikaskuntza-prozesuan eragiten duten motibazio-alderdiak garatuz, eta agur esateko aukera ematea, batez ere LH 6. mailako eta DBH 4. mailako ikasleen artean.

Ikasturte honetako azken hiruhilekoari aurre egitea erronka handia izaten ari da hezkuntzako profesionalentzat. Edozein herritarrek bezala, osasun-larrialdiak ezarritako baldintzen pean bizitzeaz gain, irakaskuntza-prozesuari ekiten jarraitu behar izan dute, erabateko ziurgabetasuneko eta hezkuntza-salbuespeneko egoeran.

Ikasleentzat ere ez da samurra izaten ari. Batzuk nahiko erraz moldatzen ari dira egoera berrira; zoritxarrez, beste batzuk, ez. Egokitzapen horretan denek ez dituzte aukera eta baliabide berberak izan. Jokoan dauden aldagaiak ugariak eta anitzak dira, eta denek, onerako edo kalterako, eragin izan dute ikasleen motibazioa eta ongizate sozio-emozionalean.



Baina, ikasturtea amaitzear da eta egindako esfortzu guztiak ondo merezitako itxiera egokia behar du. Itxiera horretan, hurrengo ekintza eremuak azpimarratu nahi ditugu.

Koordinazio eremua

Aurreko puntuetan proposatutakoak, 2020-21 ikasturtean hezkuntza esku-hartze egokia burutzen lagunduko duela sinetsita, funtsezkoa izango da LHko 6. eta DBHko 4.mailatako ikasleen kasuan, **koordinazio lanetan ohikoa den esfortzuari plus bat eranstea.**

Izan ere, alarma-egoeratik ondorioztatutako berariazko alderdiak ikasturte maila aldaketa guztietan kontuan izatea garrantzitsua bada ere, arreta berezia jarri beharko da etapa eta ikastetxe aldaketarekin batera bizi izaten diren une sentsibleetan.

Agur esateko aukera

Ustekabean, egun batetik bestera, gure eskola utzi behar izan genuen, eta agur esateko aukerarik ere ez genuen izan. Errealitateak, jakina, desberdinak eta askotarikoak izango dira, baina, neurri batean, denok sentitzen dugu **agur hori egiteko beharra.** Eta are gehiago, etapa amaitu eta gure ikastetxeari lotutako esperientziak, ikaskideak, irakasleak... atzean uzten dituzten ikasleak.

Beraz, ikasturtearen **itxiera adierazteko ekimenak egitea**, lagungarria izango da ikasle zein irakasleen sentimendu eta emozioen kudeaketa egokian.

Jakin badakigu agur esateko modurik onena aurrez aurre biltzea dela baina, une honetan ezin dugu aurreikusitako hori noiz izango den posible. Horregatik, komeni da bestelako bideak aztertzea, eta ikasturte maila guztietan garatzea oso garrantzitsua bada ere, arreta berezia

izatea aholkatzen da etapa bukatzen dutenekin. DBH 4. mailako ikasleak izango dira agur esateko proposamenak egingo dituzten lehenak.

- bideo-deia, ikasle bakoitzari agurtzeko tarte bat utziz
- bideo-grabaketak, gero bideo guztiekin nahasketa bat egiteko
- argazkiak edo marrazkiak, testu motzekin
- audioak
- idatzizko mezuak,...



Ekoizpen guztiekin erakusketa bat ere egin daiteke, PADLET bezalako tresnaren bitartez.

Eskuragarri dauden tresnak ugariak eta anitzak badira ere, garrantzitsuena ikasleekin batera ikasturtea amaitzeko formula adostea da.

Aurrera egiteko bidean

Ugariak ez ezik, anitzak eta kontrajarriak dira une oro hedabideetatik heltzen zaizkigun berriak. Horietariko batzuk, zuzenki, ikasleengan kezka eta ziurgabetasuna sortzen ari dira. Bizitzeko eta harremantzeko ohiturak, udarako planak eta lanak, ikasketak burutzeko baldintzak,... asko eta asko dira galderak, eta erantzunak, ordea, gutxi.

Mezu positiboen lanketa, aldaketen aurrean malgutasuna izatea, laguntza-harremanak ezartzea, norberaren ikuspegi positiboa lantzea, auto aurkikuntza sustatzea, sormenari ekitea, umorea erabiltzea, egoeren kontrolean baino emozioen kudeaketan zentratzea... dira beste askoren artean, **resilientzia garatzeko** gomendatutako alderdiak; esateko errazak bezain gauzatzeko hain zailak direnak.

Dena den, gogoratu, hezkuntza profesionalak garen heinean, **ardura adieraztea, gertutasuna agertzea**, eta irribarre batez jantzitako **laguntzarako prestutasuna sentiaraztea** direla, elkarren arteko solidaritateari ekiteko bitarteko garrantzitsu bezain eraginkorrak.

Horretan laguntzeko eta lan-proposamena etorkizunera begira jartzeko Eñaut Elorrieta eta Bilboko Koral Elkarteak konfinamenduan sortutako kanta partekatzea ideia ona izan daiteke.

Bestetik, inspiratzeko edota sentrazio onak partekatzeko aproposa izan daitekeen beste bideo bat duzue eskuragarri.

Leioa Kantika Korala Bring me little water Silvy

ERANSKINAK

Telefonoz edo bideo-deiaz elkarrizketa egiteko gidoia (ikaslearekin)

Sarrera

Osasun larrialdiak inposatutako konfinamenduak ikasteko eszenatokia aldatu du: zure etxea ikasgela bihurtu da. Ikasketaz gain, egoera berezi honek sortutako hainbat arazoei aurre egin behar izan diezu: senideekin espazioak eta denborak partekatu, ohiturak aldatu, frustrazioari aurre egin, besteen zaintzaz arduratu... gauza berri asko ikasteko aukera!

Ikasturtearen amaiera une egokia da azken hilabete hauetan ikasi duzun horretaz guztiaz hausnartzeko.

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.

- Ikasteko arazo teknikorik izan al duzu (ordenagailua edo tableta, interneterako konexioa, tresnak erabiltzeko arazorik...)? Zer beharko zenuke hori hobetzeko?
- Zenbat ordu eman duzu pantailen aurrean (mugikorra, ordenagailua, tableta, telebista...)? Lehen baino gehiago? Egokia iruditzen zaizu? Kanpoko kontrola behar duzu? Mugikorraren menpe zaudela iruditzen zaizu?
- Sare sozialak erabiltzen dituzu? Zure iritzia ematen duzu? Sarean errespetuz jokatzeko duzula uste duzu? errespetuz tratatu zaituzte?
- Konfinamendu egoerak sortutako emozioak eta sentimenduak (beldurrak, haserreak, frustrazioa...) azaltzeko gai izan zarela uste duzu? Nola nahiago duzu barruan sentitzen duzuna azaltzea: hitzez, kantuz, bertsoz, arte lanen bidez, ...? Sentitzen duzuna zuretzat gordetzea nahiago duzu? Zer estrategia erabili dituzu emozio eta sentimendu horiei aurre egiteko?
- Zer deritzozu agintariak emandako informazioari buruz? Nahikoa izan da, ulergarria, koherentea?
- Zer iritzi duzu konfinamendu garaian agintariak hartutako erabakiei buruz? Zentzudunak izan dira? Zerekin ez zaude ados?
- Zer deritzozu gizartearen, alderdi politikoen... jokabideari buruz konfinamenduan eta deseskalatze-fasean?

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia

- Nola moldatu zara etxean ikasteko? Gutxieneko baldintzak izan dituzu (lekua, lasaitasuna, materialen eskuragarritasuna, distraitzeko elementurik eza, argiztapenaren egokitasuna, tenperatura, ikasteko mahaia, aulkia...)?

- Ikasteko denbora ondo planifikatu al duzu? Eskatutako lanak epe barruan entregatu dituzu? Lanen kalitatea nahikoa izan da? Ikasteari eskaini diozun denbora nahikoa izan da?
- Gogoz aritu zara lanean? Zure kabuz ekin diozu eskolako lanari edo norbaitek behartua egin dituzu lanak? Zerbait egiten duzu ikasketarekiko duzun motibazioa indartzeko? Zer egiten duzu?
- Zalantzak, nola argitu dituzu? Nork lagundu dizu gehiago: irakasleek, ikaskideek, senideren batek...?
- Ikasten duzun modua eraginkorra dela uste duzu? Ikasteko estrategia berriak ikasi beharko zenituzke?
- Osasun larrialdian informazio asko zabaldu da komunikabideetan. Albiste batzuk Fake news edo albiste faltsuak izan dira, inolako funtsik gabeak. Albiste faltsuak iritsi zaizkizu? Aztertu gabeko informazioa zabaltzen duzu? Pentsatu al duzu zer ondorio dituen albiste faltsuak hedatzeak?

Elkarbizitzarako kompetentzia

- Konfinamendu egoera batean ohikoa da elkarrekin bizi direnen arteko tira-birak izatea. Horrelakoetan konponbideak bilatzen saiatu zara? Ezinezkoa egin zaizu?
- Etxeko arau berriak adostu dituzue? Arauak betetzen saiatu zara? Besteen espazioak, denborak eta beharrak errespetatu dituzu?
- Etxeko lanetan inplikatu zara? Etorkizunean konpromiso-maila horri eutsiko diozu? Zerbait berria egiten ikasi duzu?
- Parte hartu al duzu elkarbizitza hobetu dezaketen zure familiak garatutako jardueretan (jolasak, kantatzea, dantzatzea, partekatutako irakurketak, musika entzutea, filmak elkarrekin ikustea, plater berriak prestatzea, eskulanak egitea...)?
- Lagunekin harremanak mantendu dituzu? Ondo moldatu zarete? Izan al da gatazka garrantzitsurik zuen artean? Ongi konpondu dituzue?
- Ingurukoen zaintza- eta laguntza-lanetan inplikatu zara? Pozik al zaude zure konpromiso-mailarekin eta lortutako lorpenekin? Familian norbait gaixotu al da? Norbait hil da familian? Nola aurre egin diozu egoera horri? Laguntza behar duzu?

Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia

- Etxean izan duzun denbora librean ondo aprobetxatu duzu? Gauza berriak egiten ikasi duzu (sukaldaritza, musika, dantza, arte-lanak, esku-lanak...)?
- Aprobetxatu duzu egoera proiektu berriren bat martxan jartzeko (musika saioak, antzerki lanak, bideo grabaketak...)?

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

- Trebetasun berriren bat deskubritu duzu konfinamenduari esker? Zure mugak hobeto ezagutzen dituzu orain lehen baino?
- Alderdi defizitarioenak hobetzeko planik ezarri duzu?
- Plan, proiektu, ilusio berriak... planteatu dituzu? Hasi zara horiek planifikatzen?
- Egoera berrira erraz egokitu zara? Abantailak ikusi dizkiozu egoera honi?
- Egunerokoan errutinak (ordutegiak, ariketa fisikoa,...) mantentzen saiatu zara? Elikadura zaindu duzu? Atsedenerako orduak nahikoak izan dira? Ondo egiten duzu lo?
- Konfinamendu-egoerak bertan behera utzi ditu zenbait plan eta proiektu: irteerak, oporrak, ikasketa bidaia, urtebetetze jaiak, ospakizunak....Nola sentitu zara? Horrek sortutako frustrazioari aurre egiten ikasi duzu? Amorrua, haserrea, tristura eta horrelako emozioak kudeatzeko gai izan zara? Gaixo jartzeari beldur diozu?

Galdeketa paperean, ikasleak osatzeko

Izen-abizenak:

Taldea:

Osasun larrialdiak inposatutako konfinamenduak ikasteko eszenatokia aldatu du: zure etxea ikasgela bihurtu da. Ikasketaz gain, egoera berezi honek sortutako hainbat arazoei aurre egin behar izan diezu: senideekin espazioak eta denborak partekatu, ohiturak aldatu, frustrazioari aurre egin, besteen zaintzaz arduratu...gauza berri asko ikasteko aukera!

Ikasturtearen amaiera une egokia da azken hilabete hauetan ikasi duzun guzti horretaz hausnartzeko.

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

1. Ikasteko arazo teknikorik izan al duzu (ordenagailua edo tableta, interneterako konexioa, tresnak erabiltzeko arazorik...)? BAI / EZ

Zer beharko zenuke hori hobetzeko?

2. Eguneko zenbat ordu ematen duzu pantailen aurrean (mugikorra, ordenagailua, tableta, telebista...)?

- 5 ordu baino gutxiago
- 5-10 ordu
- 10 ordu baino gehiago

Egokia iruditzen zaizu?

BAI / EZ

Kanpoko kontrola behar duzu denbora kudeatzeko?

BAI / EZ

3. Sare sozialak erabiltzen dituzu zure iritzia emateko?

- Beti
- Batzuetan
- Inoiz ez

Sarean errespetuz jokatzeko duzula uste duzu?

BAI / EZ

4. Konfinamendu egoerak sortutako emozioak eta sentimenduak (beldurrak, haserreak, frustrazioa...) azaltzeko gai izan zarela uste duzu?

- Beti
- Batzuetan

Inoiz ez

Nola nahiago duzu barruan sentitzen duzuna azaltzea: hitzez, kantuz, bertsoz, arte lanen bidez, ...?

Sentitzen duzuna zuretzat gordetzea nahiago duzu?

BAI / EZ

5. Zer iritzi duzu konfinamenduan agintariek hartutako erabakiei buruz? Zentzudunak? Zerekin ez zaude ados?

--

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia

1. Nola moldatu zara etxean ikasteko? Gutxieneko baldintzak izan dituzu (lekua, lasaitasuna...)?

- Bai
 Batzuetan
 Inoiz ez

Zer beharko zenuke hori hobetzeko?

--

2. Ikasteko denbora ondo planifikatu al duzu? Balora ezazu

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Eskatutako lanak epe barruan entregatu dituzu?

- Beti
 Gehienetan
 Gutxitan
 inoiz ez

Lanen kalitatea balora ezazu

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

3. Gogoz aritu zara lanean? Zure kabuz ekin diozu eskolako lanari edo norbaitek behartua egin dituzu lanak?

--

4. Zalantzak argitzeko nork lagundu dizu gehiago: irakasleek, ikaskideek, senideren batek...?

--

5. Osasun larrialdian informazio asko zabaldu da komunikabideetan. Horietako batzuk *Fake news* edo albiste faltsuak izan dira, fundamentu gutxikoak. Albiste faltsurik iritsi al zaizu?

BAI / EZ

Informazioa aztertu gabe zabaltzen duzu?

BAI / EZ

Elkarbizitzarako kompetentzia

1. Konfinamendu egoera batean ohikoa da elkarrekin bizi direnen arteko tira-birak izatea. Horrelakoetan konponbideak bilatzen saiatu zara? Ezinezkoa egin zaizu?

--

2. Etxeko arauak betetzen saiatu zara?

Besteen espazioak, denborak eta beharrak errespetatu dituzu?

- Beti
- Batzuetan
- Gutxitan
- Inoiz ez

3. Etxeko garbiketa-lanetan inplikatu zara? Zerbait berria egiten ikasi duzu?

--

4. Lagunekin harremanak mantendu dituzu? Ondo moldatu zarete?

- Askotan
- Gutxitan
- Inoiz ez

5. Inguruko zaintza- eta laguntza-lanetan inplikatu zara?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Zure inguruko inor gaixotu da?

--

Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia

1. Etxean izan duzun denbora librea ondo aprobetxatu duzu?
Gauza berriren bat ikasi duzu (sukaldaritza, musika, dantza, arte-lanak, esku-lanak...)?

Zaletasun edota trebetasun berririk aurkitu duzu?

2. Aprobetxatu duzu egoera proiektu berriren bat martxan jartzeko (musika saioak, antzerki lanak, bideo grabaketak...)?

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

1. Zure mugak hobeto ezagutzen dituzu orain lehen baino?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

Trebetasun berriren bat aurkitu duzu konfinamenduari esker?

2. Egoera berrira erraz egokitu zara?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

Abantailak ikusi dizkiozu egoera honi?

2. Egunerokoan errutinak (ordutegiak, ariketa fisikoa,...) mantentzen saiatu zara?

- Beti
- Askotan
- Gutxitan
- Inoiz ez

Elikadura zaindu duzu?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Atsedenerako orduak nahikoak izan dira?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

Ondo egiten duzu lo?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

4. Konfinamendu-egoerak bertan behera utzi ditu zenbait plan eta proiektu: irteerak, oporrak, ikasketa bidaia, urtebetze jaiak, ospakizunak....Nola sentitu zara?

--

Gaixo jartzeari beldur diozu?

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

3. eranskina

Galdeketa online, ikasleak osatzeko.

Ikasleen informazioa jasotzeko Google formulario bat eskaintzen da. Eredua hemen ikus daiteke.

Galdeketa hori erabili nahi bada, DRIVEan kopiatu beharko da.

Horretarako txantilo **hau** erabiliko da. Talde bakoitzeko kopia bana egitea komeni da, informazioa taldeka antolatzeko.

4. eranskina

Zehar-kompetentzien adierazleak konfinamendu garaian

HITZEZ, HITZIK GABE ETA MODU DIGITALEAN KOMUNIKATZEKO KONPETENTZIA. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.		
HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Konfinamenduak sortutako zenbait ideia, emozio eta sentimendu komunikatzeko zailtasunak ditu 2. Konfinamendu egoerari buruz ez du iritzi propiorik. 3. Ikasteko eta komunikatzeko dituen bideak ez ditu erabiltzen 4. Pantailaren aurrean denbora gehiegi pasatzen du, kontrolrik gabe. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Konfinamenduak sortutako zenbait ideia, emozio eta sentimendu komunikatzeko gai da, hizkuntza desberdinen bidez. 2. Konfinamendu egoerei buruzko iritzi pertsonala era kritikoan azaltzen du . 3. Ikasteko eta komunikatzeko kanal desberdinak erabiltzen ditu. 4. Pantailen aurrean emandako denbora kontrolatzen du. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Konfinamenduak sortutako zenbait ideia, emozio eta sentimendu komunikatzeko gaitasun berezia du, eta hizkuntza desberdinetan gainera. 2. Konfinamendu egoerei buruzko iritzi pertsonala era kritikoan oso ondo azaltzen du . 3. Ikasteko eta komunikatzeko kanal desberdinak erraz erabiltzen ditu. 4. Pantailen aurrean emandako denbora oso zorrotz kontrolatzen du.

IKASTEN ETA PENTSATZEN IKASTEKO KONPETENTZIA. Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.		
HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lagunduta 2. Zailtasunak ditu 3. Lanak pilatzen zaizkio. 4. Kostatzen zaio laguntza eskatzea. 5. Laguntza behar du. 6. Behin edo behin. 7. Interes gutxi azaltzen du. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasteko lekua ondo antolatzen du eta atentzioa mantentzeko distraktoreak sahiesten ditu. 2. Ikasteko denbora ondo planifikatzen du. 3. Agindutako zereginak epe barruan betetzen ditu. 4. Zalantzak argitzeko bideak bilatzen ditu. 5. Informazioaren balioa eta fidagarritasuna aztertzen du. 6. Hainbat teknika erabiltzen ditu informazioa ulertu eta gogoratzeko. 7. Jarrera positiboa dauka ikaskuntza berriei aurre egiteko. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arduraz 2. Heldutasunez 3. Beti 4. Modu egokian 5. Gertaerak eta iritziak erraz desberdintzen ditu 6. Planteatutako galderei erantzun berriak bilatzen dizkie, sormena sustatzen duten teknikak erabilia. 7. Beti

ELKARBIZITZARAKO KONPETENTZIA. Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak eta, horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion ongirako.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lagunduta 2. Zailtasunak ditu 3. Batzuetan 4. Kostatzen zaio 5. Behin edo behin 6. Gutxitan 7. Laguntza behar du 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Konfinamenduak sortutako gatazkei irtenbideak bilatzen saiatzen da. 2. Etxeko arauak betetzen ditu. 3. Senide bakoitzaren gune eta denbora pertsonalak errespetatzen ditu. 4. Etxeko mantentze-lanetan esku hartzen du 5. Lagunekin harremanak mantentzen ditu. 6. Ingurukoak zaintzen edota laguntzen saiatzen da. 7. Familian gaixorik edo heriotzaren bat egon bada, egoki aurre egin dio. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arduraz 2. Beti 3. Modu egokian 4. Heldutasunez 5. Proposamenak egiten ditu 6. Interesa adierazten du 7. Heldutasunez

EKIMENERAKO ETA EKITEKO ESPIRITURAKO KONPETENTZIA. Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea da testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lagunduta 2. Beste norbaiten gidaritzapean 3. Gutxitan 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Denbora libre aprobeztatzen du gauza berriak ikasteko (musika, dantza, eskulanak, sukaldaritza...) 2. Proiektu berriak martxan jartzen ditu: musika saioak, antzerki lanak, bideo grabaketak...) 3. Lanak berrikusten eta hobetzen parte hartzen du. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Arduraz 2. Proposamenak egiten ditu 3. Zailtasunen aurrean aurrera egiten du

NORBERA IZATEN IKASTEKO KONPETENTZIA. Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

HASIERAKO MAILA	ERDI MAILA	MAILA AURRERATUA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Lagunduta 2. Zailtasunak ditu 3. Beste norbaiten gidaritzapean 4. Behin edo behin 5. Lagunduta 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Norbere burua hobeto ezagutzen du (gaitasunak eta mugak) 2. Egoera berrietara erraz egokitzen da. 3. Osasuna zaintzen du: elikadura, loa, ariketa fisikoa... 4. Konfinamenduak sortutako sentimenduak egoki kudeatzen ditu: amorrua, beldurra, frustazioa.. 5. Denbora librea gustuko dituen jarduerak egiteko aprobetxatzen du. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Modu egokian 2. Heldutasunez 3. Arduraz 4. Beti 5. Sormena du

5. eranskina

2019-20
ikasturtea

IKASTURTE AMAIERAKO TXOSTENA – HEZKUNTZA-ERREFORTZURAKO PROPOSAMENA
 MODELO DE INFORME DE FINAL DE CURSO - PROPUESTA PARA EL REFUERZO EDUCATIVO
 DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN SECUNDARIA OBLIGATORIA

IKASLEAREN DATUAK	LEHEN ABIZENA / PRIMER APELLIDO	BIGARREN ABIZENA / SEGUNDO APELLIDO	IZENA / NOMBRE
	JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO	TUTOREA / TUTOR-A	TALDEA / GRUPO
	HEZKUNTZA-ERREFORTZUA BEHAR DUEN EGOERA BEREZIA / SITUACIÓN ESPECÍFICA QUE REQUIERE REFUERZO		
	DATOS DEL ALUMNO/A	Ikasturte berean beste urtebete ariko den ikaslea Alumno-a que permanecerá un año más en el curso Gairen batean maila nahikoa lortu ez duen ikaslea Alumno-a que no ha alcanzado el nivel suficiente en alguna de las materias Hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituen ikaslea Alumno-a con necesidades específicas de apoyo educativo Konfinamendu egoerak sortutako beharrak Necesidades derivadas de la situación de confinamiento	

1. IKASKETEN HISTORIALAREN LABURPENA / SÍNTESIS DEL HISTORIAL EDUCATIVO

Aurretiazko informazio esanguratsuaz gain, derrigorrezko konfinamendu egoerak sortutako beharrak ere aipatuko dira
 Además de la información previa relevante, se recogerán las necesidades surgidas a raíz del confinamiento obligatorio.

2. IKASLEARENTZAT, IKASTEKO ERRAZTASUN EDO ZAILTASUN DIREN GORABEHERA ESANGURATSUAK/ ASPECTOS RELEVANTES QUE DIFICULTAN O FAVORECEN EL APRENDIZAJE DEL ALUMNO/A

	oztopatzen du dificulta			laguntzen du favorece		
	1	2	3	4	5	6
Ikaskuntza telematikorako aukera / Posibilidad de aprendizaje telemático						
Ikasteko denbora eta planifikazioa /Planificación del estudio						
Errutinen ikasketa/ Adquisición de rutinas						
Zalantzak argitzeko bideak /Medios para aclarar dudas						
Autonomia-maila/ Grado de autonomía						
Erantzukizuna eta autoexijentzia/ Responsabilidad y autoexigencia						
Emozioen eta sentimenduen kudeaketa /Gestión de emociones y sentimientos						
Ikaskideekiko harremana /Relación con los compañeros –as						
Helduekiko harremana/ Relación con personas adultas						
Ikasteko motibazioa /Motivación para aprender						
Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzak/Colaboración familia-centro						

3. KONPETENTZIEN ESKURATZE MAILA /NIVEL DE COMPETENCIA CURRICULAR

Konpetentziak /Competencias	1*	2	3
1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia Competencia para la comunicación verbal, no verbal y digital			
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia Competencia para aprender a aprender y para pensar			
3. Elkarbizitzarako konpetentzia Competencia para convivir			
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia Competencia para la iniciativa y el espíritu emprendedor			
5. Izaten ikasteko konpetentzia Competencia para aprender a ser			
6. Konpetentzia komunikazio linguistikoa eta literaturan Competencia en comunicación lingüística y literaria			
7. Konpetentzia matematikoa Competencia matemática			
8. Konpetentzia zientifikoa Competencia científica			
9. Konpetentzia teknologikoa Competencia tecnológica			
10. Gizabidezko eta gizarte konpetentzia Competencia social y cívica			
11. Konpetentzia artistikoa Competencia artística			
12. Konpetentzia eragilea Competencia motriz			

1-Hasierakoa: eskuratze mailan dagoen konpetentzia; 2-Ertaina: eskuratutako konpetentzia; 3-Aurreratua: sobera eskuratutakoa
1- Nivel inicial: competencia a desarrollar; 2- Medio: competencia conseguida; 3- Avanzado: alto desempeño

4. HEZKUNTZA-ERREFORTZUAREN BEHARRAK / NECESIDAD DE REFUERZO EDUCATIVO

ZEHAR-KONPETENTZIAK/ COMPETENCIAS TRANSVERSALES

Zehar-konpetentzia/ Competencia transversal:
<p>Hasierako mailan(1) edo aurreratuan(3) dauden zehar-konpetentziak zehaztuko dira. Besteetan (2), lortu ez diren adierazleak zehaztea ere komeni da Se especificarán las competencias transversales de nivel inicial (1) o avanzado (3). En las demás (2) conviene recoger los indicadores no conseguidos.</p>

DIZIPLINA BARRUKO KONPETENTZIAK / COMPETENCIAS DISCIPLINARES

IRAKASGAIA / ASIGNATURA:
Hasierako mailan (1) edo aurreratuan (3) dauden diziplina baitako konpetentziekin lotutako irakasgaiak zehaztuko dira Se especificarán las materias relacionadas con las competencias disciplinares de nivel inicial(1) o avanzado (3) .
Udarako lanak/ Trabajo para el verano

4. GOMENDIOAK IKASLEAREKIN ETA FAMILIAREKIN LAN EGITEKO / RECOMENDACIONES PARA EL TRABAJO CON EL ALUMNO-A Y SU FAMILIA

Datorren ikasturtean ikaslearekin eta haren familiarekin lan egiteko gomendioak: zein alderditan jarri behar dugun arreta, zeintzuk diren ikaslearengana hurbiltzeko estrategia arrakastatsuenak, zein jarduerari erantzuten dien ondoen, zer kostatzen zaion gehien... / Recomendaciones para el trabajo con el alumno o alumna y su familia durante el curso siguiente: aspectos a los que debemos prestar atención, estrategias de acercamiento al alumno-a más exitosas, metodologías o actividades a las que responde mejor o que le cuestan más...
--

Data:

Tutorea / Irakaslea(k)